2007-XI-16
Número **228.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Propgandaz gain

Zenbat eta ozenago esan lasaiago geratzen direla dirudi. Euskal administrazioetako arduradunen esanak eta egintzak pentsamolde jakin baten adierazleak dira eta ahoa ireki orduko nabarmentzen zaie euren ikuspuntu atzerakoia. Ikusmolde honek dena zipriztintzen du , inguruan dauden arduradun ororen jokabideak bide berdinetik kutsatuak geratzen direlarik.

Duela gutxi arte ohizkoak eta demokratikoenak, jator askoak ziren printzipioak galbidean jarri dituzte politikariek. Beren politikak kudeatzeko moduari kritikak onartu ezin eta gogaikarria iruditzen zaien oro deskalifikatzen dute gupida izpirik gabe. Propagandaren bitartekoak erruz erabiliaz, hedabideen bitartez gizartearen aurrean bestelako irudia eman nahi badute ere, aspaldidanik antzemana dago jokabide hori.

Beste askoren ildoari jarraituz, oso argigarriak izan dira Lan Saileko arduradun nagusiaren azken adierazpenak . Betekada handiegirik gabe, Lan Harremanen Euskal Esparrua babesteko prest daudela esan orduko, berehala dio lehenengoz sindikatu eta patronalaren artean akordioa sustatu behar dela. Posible izango ote da euskal esparruaren aurka daudenekin horrelakoa adostea? Bere erantzukizunari muzin eginaz, ezinezkoa den proposamena plazaratzen du.

Bide beretik, gehiengoari sor zaion begirunea errespetatu behar dela badio ere, azkar asko zuritzen du bere burua zenbait kasutan gutxiengoarekin sinatzea ere ulergarria dela adieraziaz. Gobernu Batzordean hartzen diren erabakiak mankomunatuak badira ere, etengabeko prestakuntzan gauzatzen ari den iruzurraz ez dio ezer; ez eta legebiltzarrean sorturiko ponentziak gehiengoaren arauak hautsiko dituenaren arrastorik ere ez. Zinez jokatuz, etengabeko prestakuntza, enplegu politikak eta etor daitezkeen bestetan, Madrilen aurrean jarrera politikoaren aldaketaren arrazoiak azaldu beharko lituzke. Bestela, esandakoak esanda ere, inork ez lioke sinetsiko konfrontazioaren alde agertu duen jarrera. Ekintzetan frogatu behar da jarrera politikoa eta propaganda handienak ere ezin du bestelakorik ezkutatu.




**Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general adjunto de ELA**

# "HOBETUZ NACIÓ DE LA MANO DEL PSE Y HOY LO ENTIERRA EA"



**En estos momentos de difícil coyuntura, tanto en los ámbitos político y social como en el sindical, entrevistamos a Adolfo Muñoz, "Txiki", secretario general adjunto de ELA, con el fin de repasar los elementos más centrales de la coyuntura y asimismo incorporar la valoración que nos merecen.**

**-ELA viene denunciado reiteradamente las políticas que en diversos campos viene aplicando el Gobierno Vasco. ¿Cómo valora ELA este desencuentro?**

-Las políticas del Gobierno Vasco son antisociales y, además, profundamente antidemocráticas. Sólo desde la inexistencia de un proyecto político coherente se puede entender la falta de impulso político en este gobierno, su falta de posición reivindicativa ante Madrid y una gestión absolutamente plana en las áreas del propio Gobierno. Por ello, los desencuentros son cada vez más manifiestos, y tienen un carácter más estructural, de discrepancias de fondo.

**-¿En qué se concretan estas actuaciones de las administraciones?**

-Las decisiones que nos afectan son responsabilidad del conjunto del Gobierno, son decisiones colegiadas. Como ejemplo, de gran trascendencia, merece citar la fiscalidad que se plantea desde el Órgano de Coordinación Tributaria, que propicia el trato de favor a empresarios y a las rentas altas (Impuesto de Sociedades e IRPF). A ello hay que añadir una política con crecientes déficit sociales. Si unimos el enorme superávit –1.150 millones de euros– de las instituciones vascas, el cuadro resultante es patético. Por eso no nos gusta el modelo de sociedad que están construyendo, porque ignora a muchas personas en beneficio de unas pocas. Las Administraciones Vascas permiten que los ricos paguen cada vez menos impuestos.

Las aportaciones presupuestarias, en términos de PIB, a sanidad, vivienda, educación, servicios sociales, son cada vez menores. Están en el vagón de cola de la Unión Europea. El poco esfuerzo inversor público evidencia una apuesta soterrada por la privatización del sector público, para que intereses privados hagan negocio con las necesidades de la gente.

**-En una reciente entrevista, el Consejero de Trabajo Sr. Azkarraga expresaba su opinión sobre varios aspectos de la coyuntura política y sindical. ¿Qué impresión nos merece?**

→

# GURE JENDEAREKIN, LANGILEAK GARELAKO

Adolfo Muñoz "Txiki"k dioenez denbora luzea daramagu euskal gobernuen politika atzerakoiak salatzen eta bestelako gizartearen aldeko jarduerak posibleak direla aldarrikatzen.

Itsu-itsuan darraite beren politikekin eta ELA bezalako eragile baten proposamenak eta ekarpenak etengabe baztertzen dituzte. Oso gogaikarria zaie kritikak onartzea eta beren propaganda bide guztiak erabiltzen dituzte gizartearen beharrizanak estaltzera.

Ezinaren ezinaz, koherentziazko proiektu politiko baten faltan, giza eragileen aurkako mespretxua eta bazterketa bultzatzen dute. Urrun, oso urrun daude herritarren beharretatik. Gu aspaldian ohartu gara horretaz, eta ez gatoz bat gobernatzeko modu horrekin. Bestelakoa da gure apustua eta erronka.

Hainbat alditan aipatu dugun legez, aspaldidanik ELAn hautua egina dugu: nahiago dugu gure jendearen errespetua, botereak eman ohi duen "errespetagarritasuna" baino. Hautu horrek nortzuk garen, norekin eta noren alde gauden ongi asko erakusten digu. Gizarte zuzenago eta orekatuago bati uko egin diotenen aurrean, ELAn gure konpromisoa berresten dugu langileekin, langileak garelako. Gaineratzen dizkiguten mehatxu eta xantaiaren ahaleginaz gain, gure indarra langileengan dago, gure jendearengan.

Gure proiektuak sinesgarritasuna du, zilegitasunez hornitua dago. Langileak bere ikusten gaituen heinean, hurbil ikusten gaituen heinean, gureak badu ibilbide oparoa, badu etorkizuna. Ez dira ibilbide samurrak izango, ez eta oztoporik gabeko jardunak. Horrek ez gaitu ordea kikiltzen, ez eta beldurtzen gure lanari ekiteko.




-Es una entrevista que no tiene desperdicio. Clarifica y sintetiza, sin ambages, la política que venimos denunciando reiteradamente.

Sobre Hobetuz dice que "prefiere no opinar". Fue el PSE-EE con quien hicimos el modelo de HOBETUZ y es EA quien lo mata, aceptando el modelo español. EA cambia de posición política, aceptando fondos condicionados desde Madrid y convierten la Administración Vasca en una oficina de financiación para la patronal y CC.OO y UGT. Y como para hacer eso les estorba la mayoría sindical vasca, cambian las reglas de juego.

No hay pulso reivindicativo hacia Madrid en el comportamiento real de este Gobierno. Ninguno. Madrid sabe que gana por el simple transcurso del tiempo. Nos anuncian que puede pasar lo mismo en Salud Laboral, políticas activas de empleo... Azkarraga, en esa entrevista, devalúa hasta hacer irreconocible la "confrontación democrática". No hace falta mas que juzgar el día a día.

**-¿Y el Marco Vasco de Relaciones Laborales?**

-Azkarraga lo explica muy claramente. En su proyecto no hay MVRL. Afirma que "si hay un acuerdo de los cuatro sindicatos y la patronal...". Otorga veto a la minoría, a quienes desde Madrid imponen su modelo valiéndose de la ley española. Después de semejante propuesta ¿En qué creen? Creen en una gestión política plana que no les comprometa en nada. Hay una ausencia muy preocupante de proyecto político. O ¿es que va a resultar que la mayoría sindical vasca es la responsable del toreo competencial sistemático al que Madrid somete a la administración vasca después de 30 años? Azkarraga lleva la *transversalidad* al campo sindical para seguir apareciendo como un mero espectador político mientras se consolida el modelo español. Es muy decepcionante.

**-¿Esta posición es reflejo de lo que viene actuando el Gobierno vasco respecto de las reglas de juego?**

-Sin lugar a dudas. Es una posición antidemocrática del conjunto del nacionalismo institucional. Azkarraga afirma que defiende los acuerdos en mayoría para pasar a justificar inmediatamente que se puedan dar acuerdos en minoría en función de la conveniencia del Gobierno. Es una broma. La responsabilidad en la ruptura de reglas de juego en el ámbito institucional y en la negociación colectiva es al 100% de ellos. Revelan su profundo carácter antidemocrático. Los ejemplos son demasiados: Osakidetza, UPV, Educación, Mesa General, la regulación de las EPSV, Itzarri, etc...

Pretenden disciplinar a quienes les criticamos por sus políticas antisociales y por su falta de respeto a las reglas de juego democráticas. No aceptan la legítima discrepancia sindical con sus políticas y se lanzan a la modificación unilateral de las reglas de juego. Azkarraga cita que está a la espera del resultado de la ponencia parlamentaria sobre el CRL y CES y que el Gobierno hará suyas las recomendaciones. Quieren que suene a amenaza.

**-¿Cuál es la situación en Navarra?**

-El mismo objetivo por otros medios. El Gobierno navarro no engaña: no le gusta ELA y la expulsa, le impide participar. El fondo es el mismo: primar un sindicalismo dócil. En Navarra sin ambigüedades. La opción por el sindicalismo de acompañamiento en Navarra no tiene matices y por tanto, cada uno sabe dónde ha de colocarse. En Navarra el Gobierno da forma legal a una decisión de expulsión de ELA y LAB que cuenta con el apoyo de UGT y CCOO y de la patronal. Nuestra gente está trabajando muy bien y vamos a demostrar con trabajo y perseverancia cómo es posible seguir ganando terreno.

**-En una valoración de conjunto, por lo que se apunta, se podría decir que hay una clara distancia, un abismo, entre la clase política y los agentes sociales, ELA en concreto...**

-Es evidente. No compartimos nada esta forma de gobernar. No existe ninguna coherencia por parte del Gobierno, ni en el autogobierno, ni en la elección de sus aliados reales con las propuestas políticas que hace en relación con "la superación del marco". No existe. ELA, como sindicato, realiza su análisis desde un observatorio esencialmente práctico y lo que ve es decepcionante. Por eso decimos que estamos muy preocupados. Desde la legitimidad de ser un sindicato de clase, con intereses propios y abertzale. Lo decimos y lo vamos a seguir diciendo.

Dedican mucho a la propaganda, a la aparición en los medios de comunicación, mientras se descuidan las necesidades sociales. El nacionalismo institucional asentado en las esferas de poder ha abierto una brecha enorme entre la cruda realidad social y los ámbitos institucionales. Eso no lo pueden ocultar. Esa es la razón de su beligerancia contra quienes criticamos sus actuaciones y planteamos alternativas distintas.

Quienes contrastamos en la realidad cotidiana los déficit sociales, las necesidades de la población, no podemos compartir en lo más mínimo una gestión anclada en la autosatisfacción propia y en la aceptación resignada de los imperativos de Madrid. El perfil político es muy plano, de bajo contenido, en la gestión de las áreas de gobierno.

*Jaurlaritzak akordio bat gutxiengoan sinatzen duenean demokraziaren joko arauak hausten ditu*

---

Egunean Al día

### Los sindicatos emplazan a Inclán a negocia; de lo contrario intensificarán las movilizaciones

# AMPLIO RESPALDO AL PARO EN OSAKIDETZA

**Los trabajadores y trabajadoras de Osakidetza secundaron de manera masiva el paro de tres horas convocados por todos los sindicatos, a excepción del SME, el pasado 15 de noviembre. Esta convocatoria de paro fue precedida por tres concentraciones de protesta secundadas por más de 5.000 trabajadores y trabajadoras.**

Nere Urrestarazu, responsable de ELA-Osakidetza, ha valorado muy positivamente el seguimiento de estos paros, "a pesar de los intentos de Osakidetza de dar impresión de normalidad imponiendo servicios mínimos abusivos, y de enfrentar a los usuarios con los profesionales del sector". En opinión de Nere Urrestarazu, el paro ha demostrado que los trabajadores y trabajadoras de Osakidetza son conscientes de que al deterioro en las condiciones de trabajo y al déficit de inversión, se le ha sumado ahora la discriminación de trato sin causa justificada, en referencia al acuerdo firmado con el SME, que representa a menos del 10% de la plantilla.

Para la responsable de Osakidetza, la solución al conflicto pasa por una negociación real, "para avanzar en un acuerdo que contenga las mejoras que necesita todo su personal". "Actuar de otra forma –continuó– sería seguir dando la espalda a más de 20.000 trabajadores y trabajadoras de todas las categorías profesionales y al 90% de sus representantes sindicales". En opinión de ELA, no existe justificación para las discriminaciones ni para dar la negociación por cerrada.

Cara a la próxima reunión de la mesa sectorial , convocada por Osakidetza para el 23 de noviembre, Urrestarazu aseguró que la voluntad de negociar de los representantes sindicales se ha demostrado en todas las reuniones, por lo que "si los responsables de Osakidetza no sacan conclusiones del amplio seguimiento de los paros y las concentraciones, si siguen negándose a negociar , seguiremos adelante e intensificaremos las movilizaciones".

*"Inclanek negoziatu egin beharko du; bestela mobilizazioak indartuko ditugu"*



### Jaurlaritzaren politika fiskala salatu du ELAk Donostian

# "ONGI ETORRI EUSKAL HERRIRA, ENPRESARIEN PARADISU FISKALA"




**Welcome to the Basque Country. Businessmen's Tax Paradise". "Ongi etorri Euskal Herrira. Enpresarien paradisu fiskala". Hala hartu zituzten Donostialdeako ELAko kideek azaroaren 12an Kursaalean bildu ziren ordezkariak. Izan ere, egun horretan *Fiskaltasun Federala eta Europa* izeneko jardunaldiak egin ziren Donostian, Jaurlaritzak eta EAEko hiru foru aldundiek antolatuta.**

ELAk Donostian duen arduradun Xabier Perez Herrerok kontzentrazioaren zergatia azaldu zuen. "Foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren zerga-politika eta aurrekontuak Europako Batasuneko atzerakoienak dira. EAE azken postuetan dago zerga-mailetan, batez ere euskal erakundeen menpeko zergetan. Eta logikaz, zerga-presioa txikia bada, gizarte-babesa ere horren neurrikoa izango da, Europako batez bestekotik dezente beherakoa; eta zer esanik ez alderatzen badugu gizarte-politiketan aurreratuen dauden herrialdeekin".

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Eusko Legebiltzarrarekin batera, fiskalitateari buruzko nazioarteko jardunaldiak antolatu arren, euren benetako zerga-politika zertan den ez dutela azaldu salatu zuen Perez Herrerok. "Euskal erakundeetako arduradunek ez dute ziur aski aipatuko nola egiten diren hemen erreformak. Herritarrei ez zaie parte hartzeko aukerarik ematen. Hemen ezkutuan egiten dira erreformak, entzunaldirik edo kontsultarik eman gabe sindikatuei edo gizarte-arloko elkarteei. Gardentasun gutxiko eta kultura demokratiko eskaseko adibide garbia da. Baina jardunbide hori oso gogoko dute hemengo agintariek. Hori ez dute esan jardunaldietan, beraz, gure lana hona etorri eta herritarrei jakinaraztea izan da".

Azkenik administrazioei jarreraz aldatzeko eskatu zien. "Jarreraz eta politikaz aldatzeko aldarria egiten dugu. Fiskalitatea herritar gehienen zerbitzura jarri behar da, eta ez, orain bezala, gutxiengoaren zerbitzura; zergak murriztearen ondorioz aberatsak are gehiago aberasten dira hemen; baina, beti bezala, jende xehearen kontura".

> *Las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco aplican la política fiscal y presupuestaria más reaccionaria de toda la Unión Europea*

# HEGO EUSKAL HERRIA DEJARÁ DE RECAUDAR 532 MILLONES POR LAS REFORMAS EN LOS IMPUESTOS

**El gabinete de estudios de ELA ha presentado su informe sobre fiscalidad en Hego Euskal Herria. El informe constata que la presión fiscal en Hego Euskal Herria se sitúa a la cola de la Unión Europea. Por debajo sólo esta Irlanda.**

Como consecuencia de la entrada en vigor de la reforma del IRPF y del Impuesto de Sociedades, la CAPV dejará de recaudar este año 446 millones de euros. En Navarra la reforma va a suponer una pérdida anual de recaudación de 86 millones de euros. Es decir, en total se dejarán de recaudar 532 millones de euros en Hego Euskal Herria.

Mikel Noval, responsable del gabinete de estudios, destaca que "este dinero se regala a las empresas y a quienes tienen rentas más altas, pero se debería destinar a gasto social. Desde ELA reclamamos un cambio de actitud y de política. Hay que poner la fiscalidad al servicio de la mayoría de la población, y no, como ocurre ahora, al de una minoría que se está forrando con las rebajas de impuestos y a costa de la gente más necesitada".




## Labur Breves

### ● ELORRIETAK ALDERDIEN LEGEA SALATU DU

**ELAko ordezkaritza batek Arnaldo Otegi bisitatu zuen Martuteneko espetxean azaroaren 8an. Jose Elorrietak, idazkari nagusia, Adolfo Muñozek, idazkari nagusiaren albokoa, eta Javier del Moralek, ELAk espetxeetan duen ordezkaria, osatu zuten ordezkaritza. Elorrietak adierazi zuen Otegi eta Batasuneko Mahai Nazionaleko buruzagien kartzelaratzeak Espainiako demokraziaren egoera ahula agerian uzten dituela. Alderdien Legea mantentzeko Zapateroren borondate irmoa ere salatu zuen.**

### ● MOBILIZAZIOAK IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN

**Iragan astean zehar mobilizazioak izan ziren EAEko unibertsitatez kanpoko Irakaskuntza Publikoan; irakasleentzat ezarritako lansarien osagarri-sistema diskriminatzailea salatzea izan zen mobilizazioen helburua. Lansarien pizgarri diskriminatzaile hauek ekainean Hezkuntza Sailak eta CCOOk gutxiengoan izenpetutako akordioaren ondorio dira.**

### ● HUELGA INDEFINIDA EN PAMPLONICA

**La plantilla de Pamplonica inició el 13 de noviembre una huelga indefinida en protesta por el bloqueo de la negociación colectiva. La convocatoria está siendo secundada mayoritariamente en la fábrica, mientras que en las oficinas el apoyo esta siendo menor.**

### ● JORNADA DE PARO EN EL SECTOR DE TELEMARKETING

**El 15 de noviembre tuvo lugar la primera jornada de paro convocada por ELA y LAB en el sector de Telemarketing, en favor de un convenio propio. El paro tuvo un seguimiento del 70%. Las siguientes jornadas de huelga serán el 5 y 28 de diciembre.**



astekaria



## Amagoia Lasagabaster, genero politiketarako arduraduna

# "EZINBESTEKOA DA LANEAN EMATEN DIREN TRATU TXARREI AURRE EGITEA"

**Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, ELAk hainbat ekimen prestatu ditu. Azaroaren 23an, goizeko 10:30tan, Andrea kolektiboko kide eta genero teknikari Tere Saezek hitzaldia eskainiko du Uribitarteko abokatuen eskolan, Bilbon. Donostian Argitan kolektiboko kide Liz Quintanak hitz egingo du ordu beran, Kutxak Arrasate kalean duen egoitzan. Eguerdian, berriz, kontzentrazioak egingo dira Hegoaldeko lau hiriburuetan, ESK eta STEE-EILAS sindikatuetako ordezkariekin batera. Amagoia Lasagabaster egun horren karian emakumeen elkarteek antolatutako ekitaldietan parte hartzearen garrantziaz mintzo da.**

**-Lan munduan emakumeen kontra ematen den indarkeria izango da jardunaldien ardatz nagusia. Zergatik?**

-Arlo pribatuan gutxi irudikatzen da emakumeen aurkako indarkeria. Ba, egoera are eta okerragoa da arlo publikoan, egoera oraindik eta ezkutuagoen geratzen delako. Horregatik lan munduan gertatzen diren indarkeria kasuak jorratu nahi izan ditugu. Genero indarkeria jendartean dagoen berdintasun ezaren adibiderik nabarmenena da gurean, eta, beraz, lan munduan ere agerian dago.

Asmoa enpresetan informazioa zabaldu eta sentsibilizatzea da. Epe motzean eraso bat gertatzen den bakoitzean zer egin beharko litzatekeen esango digun jokaera-protokolo bat lortzeko gai izan behar dugu.

**-Nola gauzatzen da emakumeen aurkako indarkeria lan munduan?**

-Muturreko indarkeri kasu nabarmenena, eta, beraz, ikusteko errazena, sexu-jazarpena da. Zoritxarrez, egun milaka dira euren lanpostuan arazo larri hau pairatzen duten emakumeek.

**-Hala ere, salaketak gutxi dira.**

-Arazoa ez da soilik salaketa gutxi egotea. Okerragoa da kasu asko ikusarazi ere ez direla egiten, emakumeek irentsi egiten dutelako; lanpostua galtzeko beldur direlako, lanean 'giro txarra' ez sortzeko…

Hori gertatzen ez denean, hots, emakumeek jazarpenari aurre egiten diotenean, normalean hitzartutako kaleratzeekin bukatzen da istorioa. Biktima joan egiten da, eta borreroak jarraitu. Oso kasu gutxik bukatzen dute epaitegietan. Eta bukatzen dutenean, zoritxarrez, justiziak ezikusiarena egiten du gehienetan. Justiziak ez ditu behar bezala babesten erasoak jasan dituzten emakumeak.

**-Zer egin daiteke lanean ematen diren indarkeria kasuekin amaitzeko?**

-Emakumeen eskubideak errespetatuko dituen kultura bat garatu behar dugu. Eta, noski, sexu-jazarpena eta eraso psikologikoei aurre egiteko kontrol eta babes mekanismoak bultzatu behar dira. Azkenik, ezinbestekoa da tratu txarrak ematen dituztenei estaldurarik ez ematea, zigorrik gabeko tratu txarrik egon ez dadin.

> *"En casa, en la calle y en el trabajo, hay que decir no a los malos tratos"*

## Labur Breves

### ● Apuesta por las energías renovables

Roberto Bermejo, doctor en economía y profesor de la UPV, participó el 13 de noviembre en una conferencia organizada por la Fundación Manu Robles-Arangiz en Bilbao sobre las alternativas energéticas. Su diagnóstico confirma que estamos ante el final de la era de los combustibles fósiles, incluido el petróleo, y la alternativa es el uso eficiente de la energía y en las energías renovables.

### ● Condena del atentado de Getxo

ELA condenó el atentado frustrado del 12 de noviembre en las inmediaciones del Palacio de Justicia de Getxo, al mismo tiempo que mostró su solidaridad con el colectivo de ertzainas. ELA exige a ETA que abandone su estrategia de lucha armada, pues rompe las bases de convivencia a las que los ciudadanos y ciudadanas de este país tenemos derecho, a la vez que reitera que la violencia y la coacción no tienen sitio entre nosotros. Por otra parte, ELA deseó la pronta recuperación de los dos agentes de la Ertzaintza heridos en la comisaría de Iurreta.

### ● ELA: "Azpikontraten eta enpresa nagusien arteko koordinazioa, ezinbestekoa"

Elorrioko enpresa batean leherketa gertatu zen azaroaren 14ean; eztandaren ondorioz behargin bat hil egin zen erredurengatik eta beste lau langile zauritu ziren. Segurtasun neurri egokiak hartzen ez direnean istripu larriak gertatzen direla erakutsi zigun berriro ere ezbeharrak. Azaroaren 15ean, berriz, langile bat hil zen Donostian, etxeak eraikitzeko makina bat gainera erorita.

Janire Dominguez, lan osasunaren arduradunaren hitzetan, ezinbestekoa da azpikontraten eta enpresa nagusiaren arteko koordinazioa eta segurtasuna bermatzea. Dominguezek gogoratu du lan istripuen kopurua onartezina dela gurean. "Europako Batasunean urtero arlo honetan liderrak izatearen ohore tristea dugu. Liderrak gara behinbehinekotasunean eta lan istripuetan".

### ● Euskara plan ezberdinak aztergai

Azaroaren 8an, Debagoienako Mankomunitateak antolatuta, enpresa komiteetako ordezkarientzat jardunaldi bat ospatu zen Arrasaten, euskara planen inguruan. Saioaren helburua ordezkari sindikalei euskara planak ezagutzera ematea izan zen. Alde batetik, sindikatu bakoitzak euskara arloan dituen egitasmoen berri ematea eta, bestetik, enpresetako euskara planak metodologikoki nola gauzatzen diren azaltzea.

Jardunaldi horretan ELAko euskara arduradun Leire Txakartegik parte hartu zuen, gainontzeko sindikatuetako, Eusko Jaurlaritzako eta hainbat enpresetako ordezkaririekin batera. Leire Txakartegik ELAk lan munduaren euskalduntzeari buruz duen ikuspegia azaldu zuen bere parte hartzean. ELAko ordezkaritza dagoen enpresetan gai honetan izan ditugun esperientzia ezberdinen berri eman zuen, ordezkari sindikalek eta langileek gai honetan izan behar duten papera azpimarratuz.




**www.ela-sindikatua.org**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org